Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Laborategiak, berrikuntza, garapen, kalitate eta ebaluazio analitiko zerbitzuak ematen ditu landa garapenaren eta ingurumenaren arloan. Testuinguru horretan, helburua analisi-zerbitzuak eskaintzea da. Zerbitzu horiek ezinbestekoak dira sektoreak produktuek bete behar dituzten araudiak betetzen dituztela bermatzeko, alde batetik eta produktuaren kalitatea hobetzeko bestetik. Baita ere, azaldu daitezkeen hainbat arazoei aurre egiteko, esaterako, gaixotasun eta osasun arazoak, bai landare baita animalia arloetan.

Hori guztia kontuan hartuta, 2021ean 82.000 lagin baino gehiago aztertu dira laborategian, ia 300.000 determinazio dituztenak. Aztertutako laginen portzentai handiena Abere Osasunaren arlokoa da, ardi- eta behi-aziendaren osasun kanpainakin. Analisi-eskaera handia duen hurrengo sektorea sagardoa eta txakolinarena da, bai lagin kopuruari dagokionez, bai eskatutako determinazioei dagokienez. Egiten duten produktuaren kalitateaz oso kontzientziatuta dagoen sektorea da, eta ondorioz analisiak egitearen beharra ikusten dute, produktua egiteko fase guztietan. Gainera, produktu horiek kalitate ziurtagiriak dauzkatenaz, produktu horiek ziurtatzen dituen erakundeak ere analisen beharra du.

Laborategiko jardura analitiko guztia bermatuta dago analisen kalitatearen arloko akreditazioarekin (UNE-EN ISO 17025). Horretaz gain, Ingurumen-kudeaketako ziurtagiria (UNE-EN ISO 14001) dugu, non GJHak (garapen jasangarriko helburuak) ere bertan kokatzen diren. Laneko segurtasunaren eta osasunaren Kudeaketa ziurtagiria (ISO 45001) eta Q-epea ziurtagiria duen zerbitzu-karta ere badugu.

Beharren eboluzioa:

Diagnostikoan esan bezala, gure bezeroen beharretara egokitzen gara. Alde batetik, administrazioak daude, batetik Sustapen Ekonomiko, Turismo eta Landa Ingurune Departamentu bera, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko beste Departamentu batzuk. Huen artean aipagarria da Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Departamentuko Obra Hidraulikoen Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza, HAZI bezalako ziurtapen-erakundeak, udalak eta abar. Bestetik, gure bezero garrantzitsuenak nekazaritza eta abeltzaintza-sektorea bera dira, non sagardoa eta txakolina egiten dutenek pisu handia dute. Sektore hau oso kontzientziatuta dago egiten duen produktuaren kalitateaz, eta prozesua hasieratik amaierara kontrolatzeko beharra ikusten du, eta, jakina, indarrean dagoen legeri tekniko sanitarioa betetzeko beharra. Aurrean, hainbat proiektutan parte hartu duten hainbat erakunderen lurzoru-analisen eskaera handia izan dugu. Horietako batzuekin elkarlanean ari gara duela 20 urte, baso-lurzoruen analisiak egiten. Bestalde, unibertsitate mundua dago, non hainbat proiektu eta doktoretza-lanekin ere elkarlanean ari garen.

Nori zuzendua:

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune departamentua, Foru Aldundiko beste departamentu batzuk, beste erakunde batzuk, eta gure zerbitzuak eskatzen dizkiguten partikular zehatz batzuk.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Langileria. Errekurtso materialak. Errekurtso ekonomikoak. Laguntza teknikoak.

2. Garatu beharreko

Landa ingurumenaren garapena eta ingurugiroaren hobekuntza bultzatzeko zehaztapen analitikoak eta aholkularitza burutzea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Zehaztapen analitikoaren emaitzak eta aholkularitza zerbitzuak.

Programaren arau esparrua:

Analisi batzuk araudiak betetzeko egiten dira, araudi hauek, elikagaiei dagozkienak izaten daitezke, esate baterako sagardo desberdinen kalitatea bermatzeko araudia. Bestalde substratuetan konposizioaren inguruko araudiak ere badaude, uren kalitatearen ingurukoak, abere osasunaren arloan hainbat gaixotasun errotik kentzeko programak arautuak daude, etab.

Zuzenean guk eskainitako zerbitzuari lotuta, zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen dekretua dago.

Guztiak ondorengo estekan ikus daitezke.

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/fraisoro/araudia>

Hauetaz gain, UN-ISO 17025, UN-ISO 14001, ISO 45001 kudeaketa sistemetan egiaztatuak gaudenez, arau horien eskakizunak betetzera behartuta gaude, baita zerbitzu-kartari dagokion Q-epearen eskakizunetara ere.


Departamentuaren jarduketa operatiboa

Urteko helburua: Ingurumenaren arloan eta landa ingurunearen garapenerako, ebaluazio analitiko eta aholkularitza zerbitzuen eskaintza mantentzea eta hobetzea.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2021-eko Aurreikuspena	2021-eko Errealak	Agintaldiko helburua
Analizatutako lagin kopurua	Kopurua	79.058,00	45.000,00	81.183,00	140.000,00
Analizatutako zehaztapen kopurua	Kopurua	275.752,00	175.000,00	294.741,00	600.000,00
Laborategien arteko saiakeretan emaitza onak	Ehunekoak	0,00	95,00	97,20	95,00

Joera


Analizatutako lagin kopurua – Kopurua



Analizatutako zehaztaperen kopurua – Kopurua



Laborategien arteko saiakeretan emaitza onak – Ehunekoa



Memoria

2020ko abenduaren amaieran, oporren garaiarekin eta lurzoruen eta substratuen arduradunaren martxarekin, arlo honetan analisiak egiteko eskaera handia izan genuen, batez ere elkarteen eta pertsonen aldetik, unibertsitateko ikerketa- eta doktorego-proiektuetako lur analisiak egiteko. Otsailaren hasiera arte hutsik geratu zen arduradun postua bete ez zenez, lur laginak pilatu ziren eta emaitzak ezin izan ziren konprometitutako epean igorri. Lur analisien eskaera, 2021erarte jeisten zioan urtez urte, baina 2020ko bukaera eta 2021ean, azken urteotako joera hautsi eta eskariak asko igo dira.

Urtearen hasieran lagin kopuru handia izaten den beste arlo bat abereen osasuna da, izan ere, urtarilaren amaieran hasten da behi-aziendaren osasun kanpaina. Aurten, gainera, IBRren jarraipen-azterketak egin behar izan zaizkie aurreko urtean kanpaina egin zitzaizen ustiategi guztiei. Behi-aziendaren osasun kanpaina eta analisi bereziarena, maiatzarako bukatu zen, gorabehera aipagarriarik gabe. Urrian hasi zen ardi kanpaina, baina aurten, mihi urdinaz gain, Q-sukarraren analisiak sartu dira kanpainen. Horrek lan-karga handiagoa ekarri du, eta, ohikoa den bezala, kanpaina-garaietan, beste arloetako langileek ere animalien osasunean aritu behar izan dute.

Arlo honetan, aipatu behar da analisiak egiteko kitetarako lehiaketa bat argitaratu dela, eta irizpide teknikoak baloratzen ez denez, IBRren analisisetarako Ingenasa izan da lizitatutako enpresa. Enpresa horrek kontratuak lortzen ditu, ez kalitate teknikoagatik, baizik eta prezioengatik, eta horrek eragin negatiboa du laborategien funtzionamenduan. Kit horiekin lortzen diren emaitzek ez dute behar adinako bermerik, eta hori Nekazaritza Ministerioarekin berarekin alderatu da.

Datorren urterako ez zaio kontratua luzatuko eta beste kontratu bat argitaratuko da, teknikoki zehatzagoak diren baldintzetan, fidagarriago den enpresa batek (eta teknikoki laborategietan egiaztatuak) kontratua

Memoria

eskuratzeko aukera izan dezan eta behi-kanpainan arazoak izan ez ditzagun.

Arlo honeta ere, likido-robot manipulatuarekin alokairu modalitateko lizitazioa luzatu da, Abeltzaintzako aplikazio berria eskuragarri egon eta izango ditugun beharrak ikusi arte ez dugu robotaren beste kontraturik argitaratuko.

Ur eta isuriaren arloan, aurreko urteetan baino lagin gehiago aztertu dira. Lagin gehienak Foru Aldundiak berak hartu ditu, batez ere Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzak. Pertsona bat bajaran egon da, ia sei hilabete, eta, beraz, beste arlo batzuetako langileek ere arlo horretara pasatu behar izan dute. Aipatu behar da, halaber, arloko arduradun berria kualifikatua izan dela dagoeneko, eta kalitate-arduraduna liberatu ahal izan dela kalitatezko gaietan buru-belarri aritzeko, eta ziurtagiriak eta mantentze-lanak egiteko etorri den pertsona berria gaitzeko.

Obra Hidraulikoen Zerbitzuarekin lankidetzan, beraiek dakartzaten laginen erregistroko zati bat automatizatu egin da, laginak hartzean kontuan izan behar diren datuak zuzenean gure laginak erregistratu eta kudeatzeko sisteman (ORALIMS) iraultzeko.

Sagardoaren eta txakolinaren analisi fisiko eta kimikoei dagokienez, urtearen hasieran hartxiduren amaieraren jarraipena egiten da batez ere, eta, kasu honetan, aztertutako lagin-kopurua aurreko urtekoa baino zertxobait handiagoa izan da. Urtero bezala, lan-karga handia irailean izaten da, sagar nahiz mahats bilketak hasten direnean, eta karga hori urte bukaera arte mantentzen da, hau da, hurrengo urteko urtarrilera arte.

Analisi sensorialak aurreko urteetako balioetan mantendu dira, eta aurtun berrikuntza gisa, Euskal Sagardoa Jatorrizko Deituran inskribatutako sagardotegiek beraiek arduratu behar izan dute merkaturatuko zituzten loteak botilaratu aurreko autokontrol-analisiez. HAZI ziurtagiria ematen duen erakundea da, eta laginak merkaturatu jasotzeaz arduratzen da, ondoren laborategira ekartzen ditu lagin horiek bai analisi fisiko-kimikoak baita sensorialak ere egiteko.

Arlo horretan, aipatu behar da, aurreko urteko ENACen auditoriaren ondoren, dastatze-metodoa aldatu behar izan dela, lehenbizi usaimen eta ahoko faseak edalontzi beltzean baloratuz, eta, ondoren, ikusmen fasea, ontzi gardenean. Era berean, aldaketa horrekin, dastaketetarako aplikazioa eta horretarako tabletak ere berritu dira. Aplikazio berri honekin errazagoa da laginen, dastatzaileen, panelaren, erreferentziazko materialaren eta abarren kontrola eramatea.

Landare-osasunaren arloan ere laginak pixka bat gehitu dira, batez ere udaberrian eta udan, espero den bezala. ENACen ikuskaritzarekin, arlo honetan akreditazioa handitzea lortu zen, landare-materialean Xylella Fastidiosaren PCR bidezko azterketa gehituz.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Analisiak egitea ingurumen gaietan eta landa ingurunearen garapenerako (nekazaritzako elikagaiak)



% 50,00



% 50,00

Ordainketa kredituak


	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	1.163.333,50	1.210.496,08	1.117.020,11		
1.1 Ekintza					
Ingurumen analisiak egitea	391.650,50	401.083,01	369.188,51		100,00
1.2 Ekintza					
Nekazaritzako elikagien analisiak egitea	771.683,00	809.413,07	747.831,60		100,00

Urteko helburua: Kudeaketa aurreratuko eta erabateko kalitateko lana sustatzea, ezagueraren eta berrikuntzaren kudeaketa hobetuz eta bezeroen, langileen eta, oro har, gizartearen itxaropenak betez


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2021-eko Aurreikuspena	2021-eko Erreala	Agintaldiko helburua
Praktika programan parte hartu duten pertsonen kopurua	Kopurua	4,00	4,00	4,00	16,00
Egindako audiotoretza kopurua	Kopurua	9,00	12,00	8,00	24,00
Zerbitzu-kartako konpromisoen betetze maila	Ehunekoa	0,00	90,00	99,00	90,00

Joera


Praktika programan parte hartu duten pertsonen kopurua – Kopurua



Egindako audiotoretza kopurua – Kopurua



Zerbitzu-kartako konpromisoen betetze maila – Ehunekoa



Memoria

Helburu horri lotutako ekintzek COVID 19aren eragina izan dute, batez ere bileretara, mintegietara, biltzarretara eta lantaldeetara joateari dagokionez. Lantaldeen eta beste erakunde batzuen arteko bilerak gehienak bideokonferentzia bidez izaten jarraitu dute, eta hori izango da, seguruenik, etorkizunerako joera, horrela denbora gutxiago galtzen baita bai bileran bertan, bai garraioan ere. Egia da, bilerak presentzialak direnean pertsona jakin batzuekin zuzenean gai gehiago lantzeko aukera gehiago dagoela, baina orokorrean esan beharra dago positiboa dela bilerak on-line egitea. Logroño egingo den Zentzumenen Analisiaren kongresua datorren urterako atzeratu da berriro, eta Animalien Osasunarena, aurreko urtean Europakoa izango zena, bertutuki egin da. Alemanian urtero egiten den cider world kongresua ere modu birtualean egin da, nazioarteko sagardo-lehiaketako epaimahaikide izateko berriro gonbidatuak izan ginen baina aurreko urte ez da posible izan.

Aurreko, Aldundiaren sagardo lehiaketa eta Sagardo Foruma ere egin dira. Sagardo Forumean, aurreko urteetan bezala, laborategia nazioarteko dastatze lehiaketaren antolatzaile nagusia izan da. Nazioarteko presentzia oso handia izan da, eta produktu oso desberdin eta oso interesgarriak ezagutu eta dastatzeko aukera izan genuen.

Gizartearekiko konpromisoari dagokionez, aurreko urtearen ekin zein zein prestakuntza zentroekin egindako praktikei, eta laborategian praktikak egitea aurreratu duten pertsonak ohi bezala etorri dira. Udan ere pertsona bat etorri da, ikasturtetik kanpo, praktikak egiteko eskatu duelako eta onartu genuelako. Foru Aldundiko prebentzio zerbitzuak gomendatuta, prestakuntza zentroen bisitak ez dira aurreko egin, baina hurrengo urtera begira, berreskuratzea aurreko urtean ditugu.

Egiaztapen- eta ziurtapen-gaiei dagokienez, urte hasieran ENACen auditoretza pasatu genuen. Bertan, adierazgarriena landare-osasunaren arloan analisi berri bat egiaztatzearena izan zen, Xylella Fastidiosak PCR bidez landare-materialean egindako azterketaren egiaztapena hain zuzen ere. Gainerako arloetan, bi espedienteetako akreditazioei eutsi zaio, UNE ISO 17025 arauaren arabera.

Laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko ziurtagiriei dagokienez, ISO 45001, eta ingurumen-kudeaketari dagokionez, UNE EN-ISO 14001, dagozkien ikuskapenak egin ziren eta bi ziurtagiriak mantentzen jarraitzen da. Bi zuzendaritza transferentzia-eredua aurrera doa. Dastatze aplikazio berria normaltasunez ari da erabiltzen, baina azken fasean aldaketa batzuk egin behar dira oraindik, dastatzaile eta panelaren estatistikari dagokionez. Aplikazio berrien inguruan, dagoeneko argitaratu eta lizitatu dira lehenetsitako aplikazioetarako enpresak, eta hurrengo aplikazioetarako lanean ari dira. Arlo honetan, hileko bilerak eta bilerak espezifikak egiten jarraitzen da, lan-arloaren arabera.

Aipatu behar da, hilabete asko igaro ondoren, pertsona bat sartu dela Mantentze eta Kontrolako buruaren postuan. Laborategiko mantentze-lan orokorrak gain, ziurtagiriaren mantentze arduratuko da kalitate-arduradunarekin batera, prestakuntza egokia jaso eta horretarako kualifikatu ondoren.

Hutsik geratu zen lur eta substratuen arduradun lanpostua ere, otsailaren hasieran bete zen, laborategian egon zen pertsona batekin eta horrek kualifikazioa asko errazten du.

Langileria gairi dagokionez, urte hasieran pertsona batek ia urte erdi eman zuen bajaran, eta beti daude arazoak ordezkapenekin, zerrendarik ez daudelako. Hori dela eta, datorren urtean LEP bidez lanpostu hutsak finkatzeko eskatuko da, edo bestela, lan-poltsa sortzeko.

Memoria

Espero zitekeen bezala, Zuzendaritzaren egitura berriak ez du laborategirako aldaketarik ekarri, zerbitzuburuarentzat izan ezik; izan ere, zerbitzuburuak denbora eskaini behar dio ikuskapenen atal berriari, eta Aldundian presentzia

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Orain arte ezarritako kalitate kudeaketa mantentzea (egiaztatzeak eta ziurtagiriak)



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	275.232,90	275.232,90	242.438,07		
1.1 Ekintza					
Barne naiz kanpo auditoretzak egitea ISO 17025, ISO 45001, ISO 14001 eta 5S arauen arabera	275.232,90	275.232,90	242.438,07		100,00

2. Jarduketa ildoak:

Prestakuntzako zentroekin elkarlanean aritzea ikasleak trebatzeko



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	222.674,00	222.674,00	184.672,62		
2.1 Ekintza					
Praktiketako ikasleak gaitzea bai laborategiko analisietan bai hobekuntza sistemetan.	222.674,00	222.674,00	184.672,62		100,00

3. Jarduketa ildoak:

Berrikuntza teknologikoko kultura indatzea eta mantentzea ingurumen gaietan eta landa ingurunearen garapenerako.



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	226.239,60	226.239,60	186.538,39		
3.1 Ekintza					
Biltzarrean, hitzaldietan, mintegietan eta lan taldeetan parte hartzea.	226.239,60	226.239,60	186.538,39		100,00

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Txikia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Indarkeriarik gabe bizitzea

Beharraren eboluzioa:

Gure zerbitzuan ez dauka garrantzia handirik, guk analisiak eskaintzen ditugulako.

HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

Beharraren eboluzioa:

Gure bezeroekin eta zerbitzu hartzaileekin lehenbiziko harremana euskaraz izatea.

Kuantifikazioa: 1.301,69 (% 0,07)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
2.2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	(% 66,67)	2.2.2. Telefonoz, online eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak	100,00
		2.2.3. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak	100,00
		2.2.1. Harrera	100,00
3.3. Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala	(% 33,33)	3.3.3. Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak	90,00

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
 12-EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.		558.510,06	
 15-LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzeari eta modu jasangarriarean erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarriarean kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.		558.510,06	
 16-BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.		613.649,08	
Guztira		1.730.669,19	

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Baimendua Autorizado	Xedatua Dispuesto	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	1.113.370,00	1.113.370,00	923.363,07	923.363,07	923.363,07	82,93
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	730.956,00	730.956,00	721.595,58	721.595,58	717.240,65	98,12
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	1.844.326,00	1.844.326,00	1.644.958,65	1.644.958,65	1.640.603,72	88,95
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	43.154,00	90.316,58	90.065,48	90.065,48	90.065,48	99,72
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	43.154,00	90.316,58	90.065,48	90.065,48	90.065,48	99,72
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	1.887.480,00	1.934.642,58	1.735.024,13	1.735.024,13	1.730.669,20	89,46

PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL		923.363,10		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		717.240,61		
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes		1.640.603,71		
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES		90.065,48		
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		90.065,48		
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total		1.730.669,19		
Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %		89,46		

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA					
Sarreraren kapituluak Capítulos de ingresos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Gauzatze Ejecución	Gauzatze % % Ejecución	Gastuari lotutakoak Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS					
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS					
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS	90.000,00	90.000,00	104.959,28	116,62	
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES					
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES					
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	90.000,00	90.000,00	104.959,28	116,62	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL					
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital					
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras					
Guztira / Total	90.000,00	90.000,00	104.959,28	116,62	

Programaren datu orokorrak

Departamentua:	04 - EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO
Atala:	0440 - Nekazaritzako eta Lurralde Oreko Zuzendaritza Nagusia
Programa:	420 - Abereen Ekoizpena eta Osasuna Sustatzea
Funtzionala:	412 - Nekazaritza eta abeltzaintzako egituren eta ekoizpen-sistemen hobekuntza

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Abere azieraren kontrola eta antolaketa osasun egoera hobereana mantentzeko, animalien osasuna bermatuko duena eta pertsonengan sortzen diren zoonosiak saihesteko. Abere ekoizpenaren hobekuntza, ahalik eta abeltzaintza errentagarritasun handiena sortzeko, betiere animalien zaintza eta ongizatearen baldintza onenetan. Helburua da abeltzaintza ustategietako ekoizpenak osasun eta elikagaien kalitate berme onenetan heltzea kontsumitzaileengana.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Oro har, abeltzaintzaren osasun-egoera ona da. Duela gutxi, Euskadik tuberkulosirik gabeko osasun-estatusa lortu du. Abian jarritako osasun-programen emaitzak, IBR esaterako, emaitza onak ematen ari dira. Hala ere, erne egon behar dugu fauna basatia ugartzeak dakarren arriskuagatik.

Ustategien tamaina txikiak, egoera ekonomikoak eta sektorearen profesionalizazio eskasak zaildu egiten dute higienarako, biosegurtasunerako, animalien ongizaterako, ingurumen-kudeaketarako eta abarretarako neurri berriak ezartzea. Hala eta guztiz ere, sektore profesionalizatuenaren inplikazioa dugu.

Bestalde, ekoizpen-kostuak handitzearen ondorioz sektorea jasaten ari den krisi ekonomiko handiak arriskuan jartzen du ustategi askoren bideragarritasuna. Egoera honek kanpo-laguntzekiko mendekotasuna areagotzen du eta belaunaldien arteko erreleboa zailtzen du

Behararen eboluzioa:

Krisi ekonomikoak areagotu egin du kanpoko laguntzekiko mendekotasuna.

Belaunaldien arteko erreleboa zailtzen dute dedikazio-ordu ugariak eta jarduerak berri bat abian jartzeko behar diren inbertsio handiek. Garrantzitsua da «Gaztenek» eta «Baserritar mixto profesionala» proiektuak bultzatzea, bai eta sektoreak ingurumenari eta ekoizten dituzten elikagaien kalitateari eusteko egiten duen ekarpena gizartean zabaltzea ere, zuzeneko salmenta eta tokiko produktuen sustapenarekin batera.

Elikagaien segurtasunaren, ingurumenaren eta animalien ongizatearen arloko eskakizunak handitzen jarraitzea aurreikusten da. Ezinbestekoa da prestakuntza, kudeaketa-tresnen hornidura eta administrazio-kudeaketarako dokumentazioaren sinplifikazioarekin jarraitzea.

Administrazioaren eta abeltzainen arteko komunikazioa hobetzeko lanekin jarraitzea beharrezkoa da

Nori zuzendua:

Abeltzainak, Abeltzaintza erakunde profesionalak, Erakunde publiko eta pribatuak, animaliak mantentzen dituzten bestelako biztanleak, elkarri lotutako jarduerak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Bertako langileak. Zerbitzu eta horniduren kontratu publikoak. Eskualdeko Nekazaritza Bulegoak Programaren finantza baliabideak.

2. Garatu beharreko

Abeltzaintzaren hobekuntza sustatzea

Lurraldeko laguntzen kudeaketa abeltzaintzan.

Nekazaritzako Politika Bateratuari lotutako diru laguntzen tramitazioa.

Abeltzaintza jarduerak baimendu eta animalien trazabilitate sistemen eta erregistroak mantentzea.

Zaintza epidemiologikoaren sistemen kudeaketa.

Abere gaitzak eta gaitz zoonotikoak ezabatu eta borrokatzeko programak garatzea. Abeltzaintzako lehen mailako ekoizpenaren nekazaritzako elikagaien segurtasuna bermatzea.

Animalien babesa eta ongizatea sustatzea eta zaintzea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Europar Funtsak eskuratu ahal izatea.

Erakunde eta abeltzainei bideratutako lurraldeko diru laguntzak eskuratu ahal izatea.
Animalien trazabilitatea elikakatean. Abeltzaintza produktuen elikagai segurtasuna merkatuan.
Animalien gaixotasunak eta zoonosiak desagerraraztea eta optimizatzea.
Animalien ongizatea babestea.

Programaren arau esparrua:


Europako, estatuko, erkidegoko eta aldundiko araudia abeltzaintzako lehen mailako ekoizpenaren osasunaren, trazabilitatearen, animalien ongizatearen eta segurtasuna eta higienearen arloetan.
Zooteknia, animalien ekoizpena, abeltzaintzaren hobekuntza eta laguntza erregulatzeke araudia.

2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Sustatzea eta balioa ematea landa inguruneke lehen sektorearen jarduerara, Gipuzkoan bioekonomia eta zerbitzu ekosistemikoak (tokiko elikagaiak, aisia eta paisaia, kultur nortasuna eta abar) sortzeko gaitasuna duenez.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2021-eko Aurreikuspena	2021-eko Errealak	Agintaldiko helburua
Diruz lagundutako inbertsioa guztira.	Euroak	495.908,00	79.750.000,00	1.184.090,00	82.000.000,00

Joera



Memoria

2021ean helburu horren barruan diruz lagundutako inbertsioa, guztira, 1.184.086 €-koa izan da. Pandemiaren ondorioek epe horretan inbertsioa murriztu duten arren, 2020. urteko inbertsioen zati bat berreskuratu da.

1.1 Ekintza. Abeltzaintza-sektorearen krisia asko areagotu zuen COVID pandemiak. Horren ondorioz, Sailak sektoreari zuzeneko laguntzak ematea erabaki zuen. Neurri batean, elkartegintza sustatzeko eta abeltzaintza-jarduerak hobetzeko diru-laguntzak % 20 murrizteari esker finantzatu ahal izan dira laguntza horiek. Diru-laguntzen zenbateko osoa 2022rako berreskuratzea aurreikusi da.

1.2 Ekintza. 2021ean, mantentze-lanak Ibarrolako finkari dagozkio oso-osorik. 2022an, beste lankidetzak-hitzarmen bat egin beharko da Alzola finka kudeatzeko, alde batetik, eta Ibarrola finka kudeatzeko, bestetik. Esleipen berrirako inbertsio gehiago egin beharko direla aurreikus daiteke, batez ere Alzolan.

Memoria

2.1. Ekintza. Pandemiak gehien kaltetu dituen partida ekonomikoetako bat azokak eta animalia-erakusketak antolatzeke diru-laguntzari dagokiona izan da. Ekitaldi gutxi batzuk baino ezin izan ziren antolatu urtearen azken herenean. 2022an normaltasunera itzultzea aurreikusten da.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Sektorearen hezurdura indartzea eta elkartegintza bultzatzea.



% 50,00



% 50,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	1.206.947,55	1.237.718,10	1.211.177,23		
1.1 Ekintza Asoziazionismoa sustatzeko eta abeltzaintza jarduerak hobetzeko diru laguntzak	1.021.041,04	1.025.612,59	994.171,39		100,00
1.2 Ekintza Alzola eta Ibarrola finken mantenua.	185.906,51	212.105,51	217.005,84		85,00

Konpromiso kredituak

	Hasierako konpromiso kredituak	Behin betiko konpromiso kredituak	Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua
Jarduketa ildoak, guztira	205.504,55	205.504,55	205.504,55
1.1 Ekintza Asoziazionismoa sustatzeko eta abeltzaintza jarduerak hobetzeko diru laguntzak	184.704,55	184.704,55	184.704,55
1.2 Ekintza Alzola eta Ibarrola finken mantenua.	20.800,00	20.800,00	20.800,00

2. Jarduketa ildoak:

Lurrari lotutako tokiko nekazaritza nahiz baso jarduera jasangarriari eta berak sorten dituen ondasunei eta zerbitzuei balioa emateko komunikazio ekintzak garatzea, Tokiko produktuen kontsumoa sustatzea.



% 50,00



% 50,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	74.004,40	74.004,40	63.394,26		
2.1 Ekintza					
Animalien azokak eta erakusketak	74.004,40	74.004,40	63.394,26		100,00

Konpromiso kredituak

	Hasierako konpromiso kredituak	Behin betiko konpromiso kredituak	Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua
Jarduketa ildoak, guztira	8.390,45	8.390,45	8.390,45
2.1 Ekintza			
Animalien azokak eta erakusketak	8.390,45	8.390,45	8.390,45


Departamentuaren jarduketa operatiboa

Urteko helburua: Abere sektorea antolatzea


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2021-eko Aurreikuspena	2021-eko Errealak	Agintaldiko helburua
Behiak dituzten abeltzaintzako jardueren kopurua	Kopurua	2.300,00	2.400,00	2.343,00	2.400,00
Banako identifikazio kopurua abere ustiatzeetan (behiak eta ardi-ahuntzak)	Kopurua	50.255,00	49.000,00	52.701,00	49.000,00
Porcentaje explotaciones calificadas indemnes (Tuberculosis bovina)	Ehunekoak	99,90	99,90	99,90	100,00

Joera


Behiak dituzten abeltzaintzako jardueren kopurua – Kopurua



Banako identifikazio kopurua abere ustategietan (behiak eta ardi-ahuntzak) – Kopurua



Porcentaje explotaciones calificadas indemnes (Tuberculosis bovina) – Ehunekoa



Memoria

COVID krisia egon den arren, behi-aziendak dituzten abeltzaintza-jardueren kopurua zertxobait handitu da (2343), legegintzaldiko helburutzat hartutako 2400 urtetik gertu. Halaber, identifikazio indibidualen kopuruak azken urteetako goranzko joerari jarraitu dio, eta ezarritako urteko helburuaren gainetik dago.

Bestalde, Europar Batasunak behi-tuberkulosirik gabekotzat kalifikatutako ustiatgien ehunekoa % 99,92 izan da. Datu horiei eta aurreko urteetan lortutakoei esker, behi-tuberkulosirik gabeko eskualdearen estatusa lortu dugu. Horrek esan nahi du kontrol horietara bideratutako aurrekontua murriztu egingo dela, eta, sektoreari prestigioa emateaz gain, ganadua mugitzeko baldintzak erlaxatu egingo direla.

1.1 Ekintza. Aurrerago adierazi den bezala, ustiatgien eta abereen erregistroak gora egin du, eta horrek helburua betetzera hurbiltzen gaitu. Sailaren egiturari buruzko dekretu berriaren ondorioz, 2021ean funtzioak eta zereginak banatzen hasi ginenez, adierazle hori Laguntzen eta Erregistroen Zerbitzuak kudeatuko du hemendik aurrera.

2.1 Ekintza. Abereen osasun-estatusa hobetzeak, tuberkulosiari zein bruzelosiari dagokienez, gastua murriztea dakar berekin. Hala ere, kreditu hori aprobetxatu egin behar da sortzen ari diren beste osasun-erronka batzuei aurre egiteko, hala nola IBR edo Mingain Urdina

2.2 Ekintza. Aurreko atalean adierazi den bezala, klima-aldaketaren moduko baldintzak lagungarriak dira gaixotasun berri gehiago egoteko. Egoera horretan, funtsezkoa da zaintza-programak garatzea eta epidemiologia-zaintzako sistemak mantentzea. Etorkizunean ekonomikoki indartu beharko den arloa da.

2.3 Ekintza. Hildako animaliak biltzeko zerbitzuari eustea funtsezkoa da ustiatgien osasun estatusa mantentzeko. Zerbitzu honetan ehiza-animaien hondarrak eta etxeko hilketetatik datozen animaien hondarrak bildu nahi dira. Hori dela eta, zerbitzu honetara bideratutako partida ekonomikoa handitu egin behar dela pentsa daiteke.

2.4 Ekintza. Tuberkulosirik gabeko eskualdearen estatus berria behi-taldeen prebalentzia oso txikiarekin lotuta dago, eta hortik ondorioztatzen da nahitaezko hilketagatik ordaindu beharreko kalte-ordainen kopurua murriztua izatea. Hala ere, estatus berri horrekin batera, emaitza positibo baten aurrean beharrezkoa da ustiatgiko behi-azienda guztiak hiltzea. Horregatik, zaila da aurreikustea ekintza hau inplementatzeko etorkizuneko behar ekonomikoa.

3.1. Ekintza. Gero eta kontrol gehiago eskatzen dituzte Europako erakundeek elikagaien segurtasunaren baldintzak betetzen direla bermatzeko. Aurreikuspenen arabera, partida horiek ere gehikuntza beharko dute. Kontuan izan behar dugu zeregin horietako asko azpikontrataturako erakundeek egiten dituztela.

4.1. Ekintza. Ibilgailuak, desinfekzio-zentroak eta bestelako elementuak baimentzea eskariaren arabera emandako zerbitzu bati dagokio. Oso lotuta dago sektoreak etorkizunean izango duen bilakaerarekin.

4.2. Ekintza. COVIDa dela, herritarrek parte hartzeko ekitaldi gehienak bezala, animaien kontzentrazioekin lotutako jarduerak murriztu egin dira horrelako herri-gertaerak bertan behera geratu direlako. Litekeena da, normaltasunera itzulita, jarduera horien antolaketa berreskuratzea.

4.3 Ekintza. Sailak lankidetza-hitzairena sinatu du Gipuzkoako Animaliak eta Landareak Babesteko Elkartarekin. 2021ean, elkarte horrek hirugarrenen diru-sarrera batzuk jaso zituen, eta, horien ondorioz, erakunde horrek itzuli egin behar izan ditu emandako laguntzak. Hala ere, lehen hitzairena sinatu zenetik gertatu ez den salbuespenezko egoera izan da hori.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Animalien trazabilitatea. Abeltzaintzako ustiapenen eta eragileen erregistroa.



% 50,00



% 50,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	301.073,52	332.243,12	265.315,65		
1.1 Ekintza					
Abere ustiaketaren erregistroa. Animalien identifikazioa. Animalien mugimenduen erregistroa. Datu baseetan erregistroa eta administrazioaren erregistroak	301.073,52	332.243,12	265.315,65		100,00

2. Jarduketa ildoak:

Animalien osasunaren optimizazioa. Epidemiologia eta animalien osasuna



% 50,00



% 50,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	2.043.350,33	2.023.981,38	1.844.240,29		
2.1 Ekintza					
Ustiaketaren osasun kontrola- Gaixotasunak desagerrarazteko kanpainak	1.283.672,22	1.283.672,22	1.209.196,98		100,00
2.2 Ekintza					
Osasuna zaintzeko programen garapena Epidemiologia zaintzarako sistema mantendu	207.216,39	207.216,39	130.286,04		100,00
2.3 Ekintza					
Hildako animalien kudeaketa	516.230,86	516.230,86	493.235,74		100,00
2.4 Ekintza					
Derrigorrezko animalien hilketen finantzazioa	36.230,86	16.861,91	11.521,53		100,00

3. Jarduketa ildoak:

Abeltzaintzako lehen mailako ekoizpenaren nekazaritzako elikagaien segurtasuna bermatzea.



% 50,00



% 50,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	147.521,44	147.521,44	92.654,39		

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
3.1 Ekintza Elikagaien osasun baldintzak betetzeko bermatu beharreko kontrol sistemak	147.521,44	147.521,44	92.654,39		100,00

4. Jarduketa ildoak: Animalien ongizatea



% 50,00



% 50,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	260.565,74	237.565,74	166.743,94		
4.1 Ekintza Animaliekin jarduerak egiteko baimena eta erregistroa (garraioak, desinfekzio zentroak, gune zoologikoak, eta abar)	95.827,44	95.827,44	63.086,73		100,00
4.2 Ekintza Animalien kontzentrazioetarako baimenak eta erregistroa. Idi demak	95.827,44	95.827,44	63.086,73		100,00
4.3 Ekintza Animalien babeserako erakundeekin lankidetzak	68.910,86	45.910,86	40.570,48		100,00

Konpromiso kredituak

	Hasierako konpromiso kredituak	Behin betiko konpromiso kredituak	Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua
Jarduketa ildoak, guztira	7.420,00	7.420,00	7.420,00
4.3 Ekintza Animalien babeserako erakundeekin lankidetzak	7.420,00	7.420,00	7.420,00

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Txikia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Diru-sarrerak eskuratzea

Beharraren eboluzioa:

Elkarteekin hitzarmenak sinatzean, Emakume Nekazarien Estatutua aplikatu da.

HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

Beharraren eboluzioa:

Ahozko zein idatzizko komunikazioetan euskarari eman zaio lehentasuna. Era berean, zerbitzuaren barruko harremanak euskaraz egiten dira.

Kuantifikazioa: 943.100,75 (% 24,40)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
2.1. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	(% 50,00)	2.1.1. Idatzizko harremanak	100,00
		memoriak euskaraz idatzita	100,00
2.2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	(% 50,00)	2.2.2. Telefonoz, online eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak	100,00
		2.2.3. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak	100,00

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	2-GOSERIK EZ Gosea amaitzea, elikagai-segurtasun eta elikadura hobe lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.	1.184.477,14	3.710,00
	8-LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA Guztionez hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu vetea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.	637.285,74	106.947,50
	12-EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.	1.184.477,14	3.710,00
	15-LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzeko eta modu jasangarriarean erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarriarean kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.	637.285,74	106.947,50
Guztira		3.643.525,76	221.315,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Baimendua Autorizado	Xedatua Dispuesto	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	852.269,00	852.269,00	544.919,44	544.919,44	544.919,44	63,94
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	1.995.313,00	1.995.313,00	1.902.855,55	1.902.855,55	1.902.513,31	95,35
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	1.185.881,00	1.143.291,60	1.134.951,92	1.134.951,92	1.134.951,92	99,27
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	4.033.463,00	3.990.873,60	3.582.726,91	3.582.726,91	3.582.384,67	89,76
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES		62.160,60	61.536,73	61.536,73	61.536,73	99,00
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		62.160,60	61.536,73	61.536,73	61.536,73	99,00
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	4.033.463,00	4.053.034,20	3.644.263,64	3.644.263,64	3.643.921,40	89,91

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako konpromiso kredituak Créditos de compromiso iniciales	Behin betiko konpromiso kredituak Créditos de compromiso definitivos	Baimendutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso autorizados	Xedatutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso dispuestos	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS					
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS					
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	221.315,00	221.315,00	221.315,00	221.315,00	100,00
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	221.315,00	221.315,00	221.315,00	221.315,00	100,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS					
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL					
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras					
Guztira / Total	221.315,00	221.315,00	221.315,00	221.315,00	100,00

PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	100.736,89	443.786,94		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	45.010,08	1.857.503,21		
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	1.098.457,39	36.494,52	213.895,00	7.420,00
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	1.244.204,36	2.337.784,67	213.895,00	7.420,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	30.367,13	31.169,60		
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	30.367,13	31.169,60		
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total	1.274.571,49	2.368.954,27	213.895,00	7.420,00
Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %	31,45	58,45	96,65	3,35

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Sarreraren kapituluak Capítulos de ingresos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Gauzatze Ejecución	Gauzatze % % Ejecución	Gastuari lotutakoak Afectados a gasto
1. ZUZENAKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS					
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS					
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS	45.000,00	45.000,00	26.431,63	58,74	
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES			39.024,44		
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES					
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	45.000,00	45.000,00	65.456,07	145,46	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL					
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital					
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras					
Guztira / Total	45.000,00	45.000,00	65.456,07	145,46	

Programaren datu orokorrak

Departamentua:	04 - EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO
Atala:	0440 - Nekazaritzako eta Lurralde Oreko Zuzendaritza Nagusia
Programa:	430 - Landaretzaren Sustapena eta Esperimentazioa
Funtzionala:	412 - Nekazaritza eta abeltzaintzako egituren eta ekoizpen-sistemen hobekuntza

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Landare alorraren barne dauden azpisektore produktibo guztien garapena bultzatu; eta landare osasuneko eta elikagai segurtasuneko eta nekazal makinariaren legediaren betetzea zaindu; azpisektore bakoitzari laguntza teknikoa eta ekonomikoa emanaz. Honekin guztiarekin lortu nahi da, landa ingurunean egiten den jardura ekonomikoa balioan jartzea, lurraldeko biodibertsitatea eta paisaiaren inguruko balioak mantentzeko funtsezko sektore gisa

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Ustiatgien tamaina txikiak, egoera ekonomikoak eta sektorearen profesionalizazio eskasak zaildu egiten dute higienarako, biosegurtasunerako, ingurumen-kudeaketarako eta abarretarako neurri berriak ezartzea. Hala eta guztiz ere, sektore profesionalizatuenaren inplikazioa dugu.

Bestalde, ekoizpen-kostuak handitzearen ondorioz sektorea jasaten ari den krisi ekonomiko handiak arriskuan jartzen du ustiategi askoren bideragarritasuna. Egoera honek kanpo-laguntzekiko mendekotasuna areagotzen du eta belaunaldien arteko erreleboa zailtzen du

Behararen eboluzioa:

Krisi ekonomikoak areagotu egin du kanpoko laguntzekiko mendekotasuna.

Belaunaldien arteko erreleboa zailtzen dute dedikazio-ordu ugariak eta jardura berri bat abian jartzeko behar diren inbertsio handiek. Garrantzitsua da «Gaztenek» eta «Baserritar mixto profesionala» proiektuak bultzatzea, bai eta sektoreak ekoizten dituzten elikagaien kalitateari eusteko egiten duen ekarpena gizartean zabaltzea ere, zuzeneko salmenta eta tokiko produktuen sustapenarekin batera.

Elikagaien segurtasunaren eta ingurumenaren arloko eskakizunak handitzen jarraitzea aurreikusten da. Ezinbestekoa da prestakuntza, kudeaketa-tresnen hornidura eta administrazio-kudeaketarako dokumentazioaren sinplifikazioarekin jarraitzea.

Administrazioaren eta nekazarien arteko komunikazioa hobetzeko lanekin jarraitzea beharrezkoa da

Nori zuzendua:

Lehen sektorea eta ustiatgien titularrak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Bertako langileria (oso mugatua bada ere), ekonomiko aukerak, finka edo etxalde experimentalak, upategi experimentalak.

2. Garatu beharreko

